

## FIAA 2017

# Irizar markako autobus eta autokar integralen belaunaldi berria

### Madril, 2017ko maiatzak 23

Irizar aurten 2.000m<sup>2</sup>-ko standarekin izango da Madrilgo Nazioarteko Autobus eta Autokarren Azokan (FIAA 2017). Han bere estrategia hedatuko du marka, teknologia eta iraunkortasunari dagokionez eta bezeroentzat eskuragarri dauden produktuen eta irtenbide teknologikoen belaunaldi berria erakutsiko ditu.

Estandean Irizarren autokar eta autobus gama zabala ikusi ahal izango da, tartean autokar integralak, autobus %100 elektrikoak eta teknologia hibridoko II klaseko ibilgailuak hiriko eta hiri arteko zerbitzuetarako. Aukera horrek bidaiarien garraio publikoaren arlo guztiei erantzuten die, bai zerbitzu pribatuetan bai publikoan, hirian, hiri artekoan eta ibilbide luzekoan, eta mugikortasun iraunkorraren sektorean lider bihurtzen gaitu.

Horrela, Irizarrek konpromiso sendoa erakutsi du bezeroekin eta gizartearekin. Izan ere, balio erantsi handia eskaintzen die produktu eta zerbitzuei dagokionez, baina diseinua, pertsonalizazioa, segurtasuna, fidagarritasuna eta iraunkortasuna bezalako gai garrantzitsuak ahaztu gabe.

Hauek dira Irizar markari gaur egun denera iristen lagundu dioten mugarriak: sektoreko erreferente bat, produktuetan segurtasuna, iraunkortasuna, errentagarritasuna, fidagarritasuna eta kalitatea lehenesten dituen, zeina 2009an hasi, eta ondoren, 2014an Irizar ie2 elektrikoa bat-batean kaleratuta, 2015ean Irizar i8a jendaurrean aurkeztuta, 2016an Irizar i6s Irizar i4 eta i3 hibridoak eta 18 metroko autobus elektriko %100 artikulatuaren lehen prototipoa merkaturatuta aurrera jarraitzen duen, gaur egun autobus eta autokarren belaunaldi berri eta oso bat eskaintzeko moduan egonda.



## Autokar integralak

### Irizar i8

Ibilbide luzeko segmentuan eta zerbitzu berezi top eta VIPetan dabilen ibilgailua.

Ibilgailuak iraultza estetiko dinamikoan eta abangoardiako teknologian du oinarria eta kalitatearen, sendotasunaren eta fidagarritasunaren ordezkari goren bihurtuko da. Sektorean bereziki nabarmenduko dira bere nortasun berezi eta handia eta ikusteak sortzen duen eragin izugarria.

Estandean ikus daitekeen bertsioa 14 m eta 3 ardatzekoa da 520 zaldiko DAF MX 13 motorrarekin. Komuna du, 220 watteko entxufeak eta USB harguneak, Irizar i8 eserleku top-ak eta HMI (Human Machine Interface) sistema seriean.

### Irizar i6s

Iaz merkaturatu eta Espainiako Urteko Autokar izendatu dute 2017an. Autokar moldaeraza da, ekipamenduaren arabera ibilbide luze edo laburretarako egokia eta baita zerbitzu berezietarako ere.

Autokar hau bi altuera aukeran eta erdiko korridorea duten autokarrak behar dituzten bezeroen beharrak asetzera dator. Eta i8aren estilo eta teknologia dauka, gainera, Irizarko belaunaldi berriaren teknologia eta espiritua.

Estandean modelo honen bi ibilgailu ikus daitezke, bata 15m eta 3 ardatzekoa 460 zaldiko DAF MX13 motorrarekin eta bestea 13 m eta bi ardatzekoa 435 zaldiko DAF MX11 motorrarekin. Ezaugarri eta ekipamendu ezberdinak dituzte gidariari eta bidaiariei zerbitzua eta erosotasuna emateko.

## Autokar hibridoak

2016an merkaturatu zen Irizar i4h ere, II klaseko hibrido paralelo bakarra maletategiarekin. Eta harekin batera Irizar i3 low entrya II klaseko bertsio hibrido paraleloan.

Irizarrek garatu duen hibridazio teknologia teknologia hibrido paraleloa da. Bi motorren konbinazioa da: azken belaunaldiko motor diesel edo biodiesel bat (Hydrotreated vegetal oils=landare olio hidrotreatatuak) eta elektrizitate sortzaile gisa jarduten duen motor elektriko bat. Beharren arabera bakarka edo batera jardun dezakete eraginkortasuna eta errendimendu onena lortzeko.



Irizar i4a nahiz i3ak 13 metro arteko bi ardatzeko bertsioan 6,7 litroko , 300 ZPko potentziako eta 1.200 Nm paretako Cummins motorra dute, eta 2017ko urtarrilaren 1etik indarrean dagoen Euro 6-OBD C araudia betetzen du. Hibridazio paketea Eaton modelo da. Eaton-Fuller abiadura-kaxa robotizatua du, 6 abiadurakoa; eta urak hozten dituen EDRIVE inbertsorea eta motor elektrikoa (44/55KW), eta MGL ioi-litiozko bateriadunak.

Ibilgailu hibridoek bi ordezkari daude estandean. Batetik Irizar i4h bat, korridorea (zoru altua) eta maletategia dituen II klaseko autokar hibrido bakarra munduan, 13 m eta 55 leku + MUP 1 eta Irizar ieh low entry bertsioan 12,75 m II. Klasea, 45 leku +MUP 1. Ibilgailu hauek dagoeneko hilabete batzuk daramatzate gure errepideetan bueltaka, batzuk 40.000 km-tik gora, eta baieztatu dute erregai kontsumoa %21etik gora murrizten dela berdin-berdina den ibilgailu diesel batekin alderatuz gero.

## Bertsio berriak aurten

Berritasun nagusia da Irizarrek Irizar i4h eta i3hren 15 m-ko bertsio hibridoak merkaturatuko dituela aurten.

Kasu honetan, 25 Tm-ko autokarrak direnez, motorra Cummins 8,9 L OBD C izango da, 370 zaldiko potentziarekin, 1600 Nm-ko pare motorrarekin, 6 abiadurako ZF Ecolife abiadura-kaxarekin eta **Irizar Taldearen teknologia duten bateria eta hibridazio paketearekin.**

Ibilgailu hauek laster izango dira martxan eta 13m-ko anai-arreben antzeko murrizketak lortuko dituzte erregai kontsumoan.

Ibilgailuak aurrealdean ZF esekidura ardatz independentea du, Vdo-Conti sistema elektriko multiplexatua, Alcoa aluminiozko haguna eta pneumatikoak 295/80 R 22,5". UN ECE R66.02 araudia betetzen du eta eskola garraiorako arauak ere bai.

## Autobus elektrikoak

Elektromugikortasunari dagokionez maiatzean hasi gara autobus elektrikoak gure konpainia berrian produzitzen, Irizar e-mobilityn. Enpresa berriak elektromugikortasun osoa lortzeko irtenbideetan jardungo du, bai ibilgailuei, bai haien osagai nagusien eta hirietako sistemei dagokionez.

Produktuen gamaren barruan daude 10,8 eta 12 metroko hiri autobusak, autobus artikulatuak edo biartikulatuak, baita hirietan zerbitzua emateko beste ibilgailu elektriko batzuk ere. Irizar e-mobilityren 18 m-ko eta %100 elektrikoa den BRT (Bus Rapid Transit) lehen unitatea iraunkortasun eta fidagarritasun probak bukatzeaz da bezeroei eskaini aurretik eta urte amaieran aurkeztuko diogu merkatuari.



Irizar i2e-ren ordezkaria azokan 12m-ko ibilgailua da, 29 lekurekin eserita, 47 zutik eta 2 MUP eta 376kwh-ko gaitasuna duten sodio nikelzko bateriekin.

Autobus elektrikoak 2014tik dabilta Europako hainbat hiritan, eta beraz, gaur egun dagoeneko bermatu ditzakegu haien autonomia eta fidagarritasuna.

## **Irizar zerbitzua**

Mugikortasun irtenbideak eta teknologiak erakustez gain, estandean bada beste espazio bat ere. Irizarrek bezeroei eskaintzen dien zerbitzu pertsonalitzaren inguruko informazioa ematen da han, eta orobat, konfigurazio aukerak eta autokarrek dakartzaten abantailak, kudeaketa elektronikoa integratuta, Irizar konektagarritasuna, flotak kudeatzeko irtenbideak eta telediagnostikoa.

Azken batean, Irizar prest dago gaur egungo eta etorkizuneko bidaiarien garraioaren beharrei erantzuteko zerbitzu eta mugikortasun iraunkorrari dagokionez kontsumo eta igorpenak nabarmenki murriztuz, noski.

Informazio gehiagorako:  
IRIZAR, S.COOP  
Ana Eceiza,  
Posta elektronikoa: aeceiza@irizar.com  
Tel.: +34 667181833